



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ANTONIO DE TRUEBA OMENDUKO DABE, ABELLANEDAN EGINGO DAN ERAKUSKETA HANDIAREN BITARTEZ

- Enkarterrietako Museoak (Sopuerta), Antonio de Truebaren, Galdameseko kronista, historialari eta idazlearen, ganean inoiz egin dan erakusketa handiena jasoko dau, jaio zaneke 200. urteurrenean.
- Egilearen kultur kontakizuna jatorrizko 100 pieza baino gehiagoren bitartez eregiten da, liburuen, dokumentuen, elementu etnografikoen, margolanen edo ilustrazinoen artean.

(*Bilbon, 2020ko garagarriaren 21ean*) Jaio zaneke 200. urteurrena dala eta, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Enkarterrietako Museoak, Antonio de Truebaren, XIX. mendeko euskal munduaren eta foruen defentsaren erreferenteetako baten, ganean inoiz egin dan erakusketa handiena prestau dabe. “*Antonio Trueba (1819-1889). Bizkaiko Kronista*” erakusketa handia gaurtik aurrera egongo da zabalik Enkarterrietako museoan. Batzar Nagusietako, Foru Artxibategiko, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Euskal Museoko piezak eta bildumazale partikularren artikuluak ditu. Gaur goizean, Albia Lorategietan dagon egilearen estatuaren ondoan aurkeztu dan erakusketea urte osoan egongo da zabalik.

ERAKUSKETAREN EUKIA

Enkarterriko idazlearen ganeko erakusketea ehun pieza baino gehiagok osatzen dabe, horreen artean liburuak, jatorrizko dokumentuak, artelanak, ilustrazinoak, Truebaren garaikide izan ziran intelektualek idatzitako testuak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek Enkarterrietako Museoaren bitartez urteetan eskuratu dituen hainbat pieza interesgarri dagoz.

Enkarterrietako Museoak katalogo publiko-pribadu hori jasoteko egokitu dau bere erdiko nabea. Bertan, Enkarterritik datozen familietako dokumentazinoa be jasoten da (XVIII. eta XIX. mendeko eskolako koadernuak, negozioetako liburuak, erlijinozko elementuak, litografiak...), eta baita oso pieza etnografiko garrantzitsuak be, Ingalaterratik ekarri zan eta 1882an eregita dagon zerratzeko makinea, Granada errotako (Ortuella) errodetek bat, edo enborrakaz egindako zepoak (erlauntzak) ezitia lortzeko. Horri guztiari, XIX. mendeko gerrateetan Bizkaiko Tertzioak erabili eban eta 1860koa dan aldare eroangarri handia, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

baita garai berean egurrean landutako Bizkaiko armarria be. Pieza azpimarragarrietako bat Aurelio Arteta margolari ezagunak egin eban Truebaren erretratua da, Foru Jauregitik Erakusketarako beren beregi ekarritakoa.

Kultur ondare garrantzitsu hori guztia antzeztutako giroan prestau da, Enkarterriko egilearen bizitzea eta lana egituratzen daben lau gunetan. “BERE LANA” izenekoan Truebaren lan handiak erakusten dira, eta baita artxibozain eta kronista moduan egin eban beharraren ganean berba egiten daben dokumentuak be. “BERE GAIK” atalean, Enkarterriko idazleak ezagutu eta landu ebazan lekuak, pertsonaiak eta gaiak erakusten dituen lanak dagoz. “BERE PENTSAMENDUA” izeneko hirugarren aretoan, bere gogoetak eta izaerea gogoratuazoten dira. Eta, bukatzeko, “BERE GARAIA” izeneko aretoan, bere bizitzagaz erlazionautako guztia jasoten da, gerra karlistak eta Bizkaiko Foruakaz eta Batzar Nagusiakaz izan eban loturea, besteak beste.

Erakusketaren helburua ez da Truebaren biografia barriro erakustea, egilearen mentalidade osoa ulertzeko ahalegina egin da.

AURRETIAZKO IKERKETEA

2018ko urriaren 15ean, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Galdameseko Udalak lankidetzarako protokoloa sinatu eben, Antonio de Truebaren figuraren ganeko ikerketa kritikoa egiteko. Lan horretan, Joseba Agirreazkuenaga EHUKo Historia Garaikide katedradunak; Montserrat Amores Bartzelonako Unibersidade Autonomoko irakasleak; Jesús Arrate XIX. mendeko gerrateetan adituak; Goio Bañales Enkarterrietan zentrautako ikerlariak; eta Javier Barrio Enkarterrietako Museoko Zuzendari Teknikoak hartu dabe parte.

Laneko talde horrek politikaren eta literaturaren ikuspuntutik ikertu dau Truebaren figura. Gerra karlistek bere bizitzan izan eben eragina eta Enkarterrigaz, jaio zan eskualdeagaz, euki eban hartu-emon sakona be aztertu dabe. Ikerketa horrek egilearen ikuspegi barria emon dau, eta erakusketaren kontakizuna eregiteko oinarria izan da.

Egileei ikerketa lan hori eskertu ostean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak, *“Trueba pentsalari moderna, kazetari eta idazle ona, historialari handia eta euskal Foruen eta tradizioen defendatzaile sutsua izan zala”* azpimarratu dau.

XIX. MENDEKO INTELEKTUAL HANDIA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Antonio María de Trueba y de la Quintana (Galdames, 1819ko abenduaren 24a – Bilbo, 1889ko martiaren 10a) XIX. mendeko Bizkaiko intelektual azpimarragarrienetakoa izan zan. Eleberri, umeentzako ipuin eta poesia lan asko idatzi ebazan, lan etnografiko handia egin eban, eta bere kontakizunetan Bizkaiko historiak eta tradizioak jaso ebazan. Lehenengo Gerra Karlistatik igesi, 15 urtegez Madrilera joan zan beharrean, eta bertan hartu-emonak izan ebazan garai haretako idazle garrantzitsuenakaz.

Antonio de Trueba euskal balioen eta foruen defendatzaile handia izan zan, eta bere ospea hain handia egin zanez, 1862an Bizkaiko Batzar Nagusiek Jaurerriko Kronista eta Artxibozain izendatu eben, eta horrek Bilbora itzultzeko aukerea emon eutsan. Albia lorategietako estatua, herritarrek emondako diruagaz ordaindutakoa (bertan egingo da erakusketaren aurkezpen ofiziala) eta Manuel María de Smithek egin eban eta Galdameseko Montellano auzoan, jaio zen herrian, dagon monumentua, intelektual horren ospearen eta pisuaren erakusgarrietako batzuk dira. Hil eta gero be bere garrantziak indarrean jarraitzen dau, eta bere figurak omenaldiak eta lilurea sortzen ditu, jaio zanetik bi mende igaro diranean.

Gaur goizean, Bilboko Albia Lorategietan dagon Truebaren eskulturaren aurrean egin dan erakusketaren aurkezpen ekitaldian, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, Lorea Bilbao Kulturako Foru Diputatua, Raket Larruskain Galdameseko alkatea, eta Mamen Etxebarria Sopuertako Udaleko lehenengo alkateordea egon dira, eta baita Bizkaiko Batzar Nagusietako mahaiko zenbait kide eta Javier Barrio Enkarterrietako Museoko zuzendaria be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA HOMENAJEAN A ANTONIO DE TRUEBA CON UNA GRAN EXPOSICIÓN EN ABELLANEDA

- **El Museo de Las Encartaciones (Sopuerta) acoge la mayor muestra sobre la vida y obra del cronista, historiador y escritor de Galdames en el 200 aniversario de su nacimiento.**
- **El relato cultural de este autor se construye con más de 100 piezas originales entre libros, documentos, elementos etnográficos, cuadros o ilustraciones.**

(Bilbao, a 21 de julio de 2020) Con motivo del 200 aniversario de su nacimiento, las Juntas Generales de Bizkaia y el Museo de Las Encartaciones de Abellaneda han preparado la retrospectiva más importante sobre la vida y obra de Antonio de Trueba uno de los referentes en la defensa del mundo vasco y los fueros en el siglo XIX. La gran exposición titulada “*Antonio Trueba (1819-1889). Cronista de Bizkaia*” está abierta desde hoy en el museo encartado. Incluye piezas propiedad de la Cámara vizcaína, el Archivo Foral, la Diputación Foral de Bizkaia, el Museo Vasco, y artículos de coleccionistas privados. La muestra, presentada esta mañana junto a su efigie en Jardines de Albia, en Bilbao, estará abierta todo el año.

CONTENIDO DE LA EXPOSICIÓN

La exposición sobre el escritor encartado está compuesta por más de cien piezas que incluyen libros, documentos originales, obras de arte, ilustraciones, textos escritos por intelectuales contemporáneos de Trueba y numerosas piezas de interés que han ido adquiriendo durante años las Juntas Generales de Bizkaia a través del Museo de Las Encartaciones.

El Museo de Las Encartaciones ha acondicionado su nave central para acoger este catálogo público-privado en el que se incluye también documentación de familias procedentes de Las Encartaciones (cuadernos escolares de los siglos XVIII y XIX, libros de negocios, elementos religiosos, litografías...), así como piezas etnográficas muy relevantes como una máquina serradora procedente de Inglaterra construida en 1882, un rodete del molino Granada (Ortuella) o cepos (colmenas) hechas con troncos para elaborar miel. A ello se suma un gran altar portátil utilizado en las guerras del siglo XIX por el Tercio de Bizkaia y que está fechado en 1860, además de un escudo de Bizkaia tallado en madera de la misma época. Una de las piezas más destacadas es un retrato de Trueba



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hecho por el famoso pintor Aurelio Arteta, traído para la ocasión desde el Palacio Foral.

Todo este importante legado cultural se ha dispuesto en un ambiente teatralizado con cuatro áreas que ordenan la vida y obra del autor encartado. En una de ellas, titulada “SU TRABAJO”, se muestran las grandes obras de Trueba así como documentos originales que hablan de su papel como archivero y cronista. En “SUS TEMAS”, se muestran decenas de obras que representan los lugares, personajes y temas que trató el escritor encartado. En una tercera sala, “SU PENSAMIENTO”, se evocan sus reflexiones y su personalidad. Y, por último, en la sala denominada “SU ÉPOCA”, se acoge todo lo relacionado con su vida, las guerras carlistas y su conexión con los Fueros y las Juntas Generales de Bizkaia.

La exposición no pretende repetir una vez más la biografía de Trueba, sino que se ha buscado entender la mentalidad completa del autor.

INVESTIGACIÓN PREVIA

El 15 de octubre de 2018, las Juntas Generales de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Galdames firmaron un protocolo de colaboración para realizar una investigación crítica sobre la figura de Antonio de Trueba en la que han trabajado Joseba Agirreazkuenaga, catedrático de Historia Contemporánea de UPV/EHU; Montserrat Amores, profesora de la Universidad Autónoma de Barcelona; Jesús Arrate, investigador especializado en las guerras del siglo XIX; Goio Bañales, investigador centrado en el ámbito de Las Encartaciones, y Javier Barrio, Director técnico del Museo de Las Encartaciones.

Este grupo de trabajo ha investigado la figura de Trueba desde el punto de vista político y literario, así como la influencia que tuvieron las guerras carlistas en su vida y la relación profunda que mantuvo con Las Encartaciones, su tierra natal. Esta investigación ha ofrecido una nueva visión del autor y ha sido la base para construir el relato de la exposición.

Tras agradecer a sus autores este trabajo de investigación, la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha descatalogado que *“Trueba fue un pensador moderno, un buen periodista y escritor, un gran historiador y un firme defensor de los Fueros y de las tradiciones vascas”*.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

GRAN INTELLECTUAL DEL SIGLO XIX

Antonio María de Trueba y de la Quintana (Galdames, 24 de diciembre de 1819 – Bilbao, 10 de marzo de 1889) fue uno de los intelectuales vizcaínos más destacados del siglo XIX. Autor de numerosas novelas, cuentos infantiles y obras poéticas, realizó una importante labor etnográfica, recogiendo en sus narraciones historias y tradiciones de Bizkaia. Huyendo de la Primera Guerra Carlista, con 15 años se marchó a trabajar a Madrid, donde tomó contacto con los principales escritores de la época.

Antonio de Trueba fue un firme defensor de los valores y los fueros vascos y su prestigio creció de tal manera que en 1862 las Juntas Generales de Bizkaia le nombraron Cronista y Archivero del Señorío, lo que le permitió volver a Bilbao. La estatua de los jardines de Albia, financiada con suscripción popular (escenario de la presentación oficial de la muestra), y el monumento realizado por Manuel María de Smith en el barrio de Montellano de Galdames, donde nació, son algunas muestras de la fama y el peso de este intelectual cuya notoriedad perdura tras su muerte y cuya figura aún es objeto de homenaje y admiración dos siglos después de su nacimiento.

La presentación de la exposición, que ha tenido lugar esta mañana delante de la escultura de Trueba en Jardines de Albia de Bilbao, ha contado con la presencia de la Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, la Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao, la Alcaldesa de Galdames, Rakel Larruskain, el Primer Teniente Alcalde de Sopuerta, Mamen Etxebarria, además de integrantes de la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia y del director del Museo de la Encartaciones, Javier Barrio.